

## Santa Kruz, mitoa

*Deia*, 1983-08-01.

"Mito" hitza Grekotik dator: "muthos", eta zera esan nahi du: *alegia*, fabula; ez da *egia*, baina *egian oinarritutako* zerbait da.

Gizonak *behar* ditu mitoak, eta *sortzen* ditu sarri.

Gure lehen karlistadan bagenuen egiazkorik zuen mitoa: *Zumalakarregi*; bigarrenean ez genuen sorte bera izan, falta zitzaigun, eta *Santa Kruz*-ena sortu zuen gure herriak.

Gure ustez, bi izan ziren mito honen oinarri nagusiak: 1- Hernialden elizara bila etorri eta egindako iheste polita; 2- Aramaioko udaletxetik egindako ihesaldi larria.

*Ernialdeko ihestearen* aipaera asko egin da, eta nik Orixeri jarraituko diot: Salatiak baziren orduan ere, eta pulpitutik gobernuaren aurka ari zenekoak iritxi ziren Tolosara, sermoiaz kanpo bazen arma konturik ere, eta *1870ko irailak 6* zituela heldu zen apaizaren bila "Segorbe"ko bataloia, Mikelete askorekin. Garai onean iritxi, gainera, meza ematen ari zela; utzi zioten bukatzen; laster zuen kapitaina sakristian: preso zela; seroraren etxean gosaria hartzen utziko ahal zioten, eta militarrek baietz; honek soldaduak etxe inguru guztian jarri eta lasai geratu zen kanpoan zain; Santa Kruzek, gosalduek beharrean, sotana abioan kendu eta seroraren senarraren galtza eta abarkak jantzi, bizkar-saskia buruan eta igitaia eskuan zituela irten zen soldaduei egunonak emanez. Konturatu zirenerako Bidania aldeko bidea egin zuen mendiz.

*Aramaioko ihesaldiaren berri* Santa Kruz berak ontzat emandako kondaketa<sup>1</sup> laburtuko dut: 1872garrengo abuztuak 11, Gazteizko koartelelan pozik zen Primo de Rivera generala, biharamonean apaiza fusilatzen ikustera joatekoa baitzen. Bitartean, hau Aramaioko udaletxean hur-hurrean; konfesatu ere egin zen; jarri zen etzanda gaiso papera egiten, goitikako zorian tripei eutsita, gelan bertan jarri zioten soldadua kupitu arteraino; laster ikusi zion apaizak fusila kargatu gabe zeukala; gauerdian biztu zen apaiza, ireki zuen balkoia eta jauzi handi batez kalean zen. Ez zen mendiratu, ibaian sartu eta honen bazter batean geratu egin zen; laster sentitu zituen zaldiak, zakurren zaunkak eta gizonen ahotsak inguruko artadietan miaka, eta "ni -dio berak- ur azpian, ahoa bakarrik kanpoan, eta hau sartzetik izan banu, ez nukeen kanpoan utziko"; gaueko 12etatik goizeko 11arte "ezin nuen hotza gehiago jasan; jarri nintzen zutik eta esan nuen, 'lehen ikusten dutana aingeru guardakoa izan behar du'; eta laster ikusi nuen artotartean baserritar bat, eskuaz egin nion etor zedin; neu gerritik gora ezer gabe nengoen, ur azpian zuria erraz ikusten bait da; baserritarrari esan nion: 'ez dakit karlista ala liberala zaren, hori gutxi ajola neuri, lagundu behar nauzu, nire aingeru guardakoa izan zaitez'..." "Larrañaga" baserrian hartu zuten, eta gero Anbotoko koba baten gorde...

<sup>1</sup> "Mi fuga de Aramaiona", *Razón y Fé*, tomo LXXVII, 1926.